

Sareinak
Emakumeen
literaturaren bloga

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Thesi
Galtza bakeroekin
eta takoiekin

ARGIA

e r d i k o k a i e r a

kultura eta aisia

Copyfight

Publikoa eta legeak borrokan

INES URRUTIA

Edozein kausaren aldeko nazioarteko egunak izaten direnean kausa hori gaizki doanaren seinale garbi samarra izaten da. Zerbaitengatik ez dituzte banketxeen aldeko nazioarteko egunak antolatzen. Apirilaren 26a Jabetza Intelektualaren Nazioarteko eguna izan da. Efemerideak aro digitalak kultur industriarengan izan duen eraginaz eta etorkizunean izango duenaz gogoeta egiteko bidea eskaintzen du. Teknologiak produktu kulturalak kopiatzea gero eta errazago egiten duenean zer funtzio jokatuko dute egile eskubideek? Zein dira copyrightaren alternatibak? Ondorengo orrialdeetan gako batzuk ematen saiatuko gara.

GORKA BEREZIARTUA

Copyleftaren ikurra Lasarteko trafiko ispilu batean. Egile eskubideen inguruko eztabaidan garrantzia hartu du kopia, eraldaketa eta banaketa librearen aldeko mugimenduak.





METABOLIK BioHACKLAB

Copyleftaren aldeko elkarretaratzea Bilbon. Pankartan "Partekatzea ona da. Ez zaitzatela engaina, ez da delitua!" dio.

Jabetza intelektual: zer egin?

INFORMATIKA kontuetan oso jantziak ez gare-nok beldurrez jaso genituen 2000. Urteko Efektua-ren inguruko lehen albisteak. Irakurleak ezagutuko ditu milurteko aldaketarekin batera hedabideek egin zituzten iragarpen apokaliptikoak: konputagailuetan oinarritutako sistemen kolapsoa omen zetorren, horien datak bi digi-turekin funtzionatzeko prestatuta zeudenez 2000. urtera iristean 1900ean zeudela "ulertu-ko" zutelako. Arazoak krisi ekonomiko izuga-riak ekarriko ei zuen.

Haizezko dorreak. Ez zen horrelakorik ger-tatu. Alta, 2000. urteak teknologia berrie-kin lotutako bestelako aldaketa nabarmenak zekar-tzan eta horiek ere hekatonbe kolorez marraz-tu zituzten hedabideek.

XXI. mendeko eztabaida

Duela zazpi urteko apirillean Metallica taldeak auzitara eraman zuen musika elkartrukerako Napster ataria, web gun-
e horretako erabiltzai-

leek oraindik argitaratu gabe zegoen *I Dissappear* kanta eskuz esku zerabiltelako, egile eskubi-deengatik zentimo bat ordaindu gabe. Ordura-ko taldearen aurreko diskoak ere Napsterreko sarean barrena zebiltzan, beste hainbat talde-
nak bezala.

Eztabaida publiko egin zen eta Napste-
rren kideko beste elkartruke sareak azaldu
ziren nonahi. Eta etorri ziren salaketa gehia-
go, kanpaina instituzionalak eta kulturaren
elkartruke digitalaren aurkako jazarpen giroa.
Baina egile eskubideak kudeatzeko bestelako
moduek ere protagonismo berezia hartu
zuten. Copyleft hitzak software mundutik
sorkuntzaren alor guztietara jauzi egin zuen.

Egilea ala industria?

Galdera mahai gainean dago: zer egin behar du
egileak: kopia kopurua kontrolatu orain arteko
zabalkunde industrialaren ildotik ala teknologia
berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz

bere lana zabaltzen, kopiatzen eta eraldatzen utzi?

Copyrightak egileari, “gurasoari” ematen dizkio sorkuntza lanen zabalkunde eta eraldaketaren inguruko eskubide guztiak. Egilea hiltzean ere berak erabakitako pertsonak izango dute “haurren” kontrola, mende erdi baino gehiagoz sarritan.

Legeriek ere ildo bera jarraitzen dute. Gurean Espainiako eta Frantziako Jabego Intelektualaren Legeek ezartzen dituzte sorkuntza lanen inguruko eskubideak. Biek erabateko eskumena ematen diote egileari bere lanaren gainean.

Kritikari askoren ustez horrek kulturaren zabalkundea oztopatzen du. Horren adibide izan liteke Hegoaldeko kasuan, ekoizpen kulturalen kopia pribatuak egitea baimendua egon arren, joan den urteko azken erreformaren ondorioz kopia horiek egiteko erabiltzen diren euskarriengatik erabiltzaileek kanon bat ordaindu behar izatea. Kanon hori gainera egile eskubideen kudeaketaz ardurtzen diren erakunde pribatuak –SGAE kasu– kutxetara joango da.

Bidasoaren iparraldean berriz, hori ere ez. Joan den astean Frantziako Kasazioko Auzitegiak obren egileei bakarrik aitortu die kopia pribatuak egiteko baimena.

Copyleftaren oinarriak ezagutzeko



Traficantes de Sueños argitaletxeak joan den urteko irailean kaleratu zuen *Copyleft Manual de Uso* liburua Artelekuren eta UNIA arteypensamiento proiektuaren laguntzaz. 2005ean Donostian antolatutako Copyleft jardunaldietan sortu zen gida liburua idazteko ideia eta 2006. urtean gauzatu zen. Liburuak copyleft mugimenduaren oinarriak azaltzea du helburu eta alor desberdinetan –softwarea, liburuaren edizioa, musika, artea, legeak, ikus-entzunezkoak...– izan ditzakeen nabardurak azaltzen ditu.

Gainera, liburuaren azken atalean, lizentzia librean erabilerak kultur produktotik haratago duen garrantzia nabarmentzen da, gizartea eta politika antolatzeko era berri batekin duen zerikusia azalduz. Liburua osorik deskargatu daiteke www.manualcopyleft.net helbidean.

Joko bikoitza

Baina musika, literatura, artelanak eta abar luze bat kopiatzea eta zabaltzea hain da erraza, eta Internetek hainbeste aukera eskaintzen ditu... Xabier Barandiaran Bilboko Metabolik Bio Hacklab taldeko kidearen ustez industriak badaki hori. “Marketing kanpainen barruan kontuan hartzen da kopia ilegalek izugarritzko era-

INFORMATIKARI EUSKALDUNEN VI. BILKURA

WEB 2.0 HEMEN

DOAKOA

Izen emate epea zabalik

2007ko maiatzak 10

Donostiako Teknologi Elkartegia



ueu.org
enpresadigitala.net

UEU
Udako Euskal Unibertsitatea

@
Miramon
Enpresa Digitala

15. HAZI LANAREN
GOB. EUSKAL
Eusko Jaurlaritzaren
Departamentuak

Creative Commons ez-komertzialak eta sor ditzaketen arazoak

Lizentzia bat libretzat jotzeko Richard Stallman programa-tzaile eta teoriarari estatubatuarrek software arlorako sortutako askatasunak hartzen dira oinarri. Lau dira askatasun horiek: softwarea edozein xederekin erabiltzeko askatasuna; aplikazioa aztertu eta norberaren beharretara moldatzeko libre izatea; mugarik gabe kopiak egin eta banatzeko libertatea; eta aplikazioa edonork aldatu, hobetu eta berriz banatzeko askatasuna.

Definizio horren arabera, askorentzat ekoizpenen erabilera komertziala egitea baimentzen ez duten lizentziak ez dira copyleft. Oso hedatuak dauden Creative Commons erako lizentzien kasuan adibidez, lana merkataritza xedetarako erabiltzea baimendu edo debekatu dezake sortzaileak. Xabier Barandiaranen ustez gaia konplikatu da, baina erabilera komertzialak ez debekatzeko gomendatzen du. "Nahiz eta erabilpen komertziala egiteko askatasuna izan, obraren prezioa beti minimoa izango da. Argitaletxeek zerbait publikatzen badute eta zu fotokopiatzeko aske baldin bazara, publikazio horren prezioak minimoa izan behar du, bestela edozein argitaletxek prezio txikiagorik kaleratu dezakeelako, edo jendeak fotokopiatu eta saldu". Horrek kulturaren prezioa merkatzen du Barandia-



Goiko irudian Richard Stallman (ezkerrean) eta Xabier Barandiaran. Stallman izan zen software munduan copyleftaren oinarriak jarri zituenak.

ranen esanetan eta hedapen handiagoa ematen dio.

Gainera, bestelako arazoak ere sortzen ditu xede komertzialeko erabilerak ez baimentzeak: "Zer gertatzen da autoretza kolektiboarekin? Obrari askatasun osoa ematen ez badiozu, edozein argitaletxek hori zabaldu nahi izanez gero autore bakoitzari galdetu behar dio hori egiterik baduen. 140 autorek obra berean parte hartu badute komertzializazioa ezinezkoa izango da".

gina dutela produktu bat zabaltzeko. Industriak bi aldetara jokatu behar du: abesti bat ezaguna egiten denean edo liburu bat asko saltzen denean bere hedapen askea murriztuz, baina produktu ezezagunak zabaltzeko erabiliz".

Horregatik, Barandiaranen ustez, industriak sarea kontrolatu nahi du. "Nire sententzia da, eta beste askorena ere bai, orain arte bizi izan dugun Internet barruko askatasun aroa amaitu egingo dela eta guztiz erregulatutako beste aro batera helduko garela. Ez da erraza. Gaur egun *copyright* gerrateak daude: gizartearen parte handi bat industriaren aurka legitimazio debatea sortzen ari da". Publikoa eta egile asko kontrolaren aurka mugitzen ari dira, alternatibak sortzeko. Barandiaranen ustez "Copyleftarekin autoreek ere asko irabazten dute, besteen sortuntzak berrerabiltzeko libre baitira, kultura kolaboratibo eta metagarrian parte hartuz".

"Eman ta zabal zazu munduan frutua"

Halaxe zioen Iparragirrek *Gernikako Arbola* kantuan. Urretxuko koblakaria ote euskaldunon artean copyleftaren alde egin zuen lehenbizikoa? Ekoizpen kulturalen elkartruke librearen aldekoentzat behintzat leloak antzeko izaten segitzen du: publikoari eskubideak eman, sortutakoa era askean zabaltu.

Barandiaranek azaldu duenez, "copyleftaren filosofia obra zentroan egotea da, eta ez autorea. Obrari askatasun guztiak eman behar zaizkio". Sortutako lanak ikusiko du norekin elkartzen den beraz, baina "aita eta

amak" ez diote printzipioz debekurik jarri behar. Sortzaileak guraso aurrerakoiak izan behar du.

Gakoa egilearen jarreraren dago beraz: bere lana kopiatu, banatu eta publikoki zabaltzeko askatasuna eman dezake, hala nahi badu horiek egiteko baldintzak jarritz.

Baldintza horiek artikulatzeko lizentzia moten artean arrakastatsuenak Creative Commons izenekoak dira. www.creativecommons.org web guneak edozein sortzaileari aukera ematen dio bere lizentzia aukeratzeko bi galderari erantzunez: lehenbizikoa, "zure lana merkataritza xedetarako baimendu?"; bigarrena, "zure lanaren aldaketak onartu?". Behin horiek erantzunda, lana zein baldintzatan kopiatu eta banatu daitekeen azaltzen duen lizentzia jasoko du sortzaileak. Creative Commonsak egiletza aitortze hutsetik, lan eratorriak eta erabilera komertziala debekatzera joan daitezke eta beti baimentzen dute lana kopiatu eta banatu ahal izatea egiletza aitortuta.

Zer egin? Leninen itaunarekin hasi da artikulu hau; Barandiaranen hitzekin amaituko dugu: "Gure etorkizuna nolakoa izango den definitzen ari gara eta gizarte osoaren inplikazioa behar dugu". ■

Creative Commons by-sa. Libre zara artikulu hau kopiatu, aldatu eta elkarbanatzeko, autoretza eta lizentzia hau mantenduz gero. Informazio gehiagorako:

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>